

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

71/2023 Foru Agindua, martxoaren 16koa. Arabako Arraia-Maeztu, Iruraiz-Gauna eta Donemiliagako udalerrietako lurzoru urbanizaezinean jarriko den "Laminoria" parke eoliko eta fotovoltaikoaren plan berezia onesteko prozeduraren hasiera

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abenduaren 21eko 348/2022 Foru Aginduaren bidez, "Laminoria" parke eoliko eta fotovoltaikoaren plan bereziaren eraginpekoak diren udalei bi hilabeteko epea ematea ebatzi zen akordio bat lortzeko, eta udaletako batek bere gain hartu beharko du izapidetze eta onespren prozedura.

Foru agindu hori 2023ko urtarrilaren 3an jakinarazi zitzaion Arraia-Maeztuko Udalari, 2023ko urtarrilaren 4an Iruraiz-Gaunako Udalari eta 2022ko abenduaren 28an Donemiliagako Udalari.

Horretarako emandako epean, eraginpeko udalek ez dute idazkirik aurkeztu Arabako Foru Aldundian.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, honako hauek xedatutakoaren arabera: Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua; Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretua; eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretua.

2/2006 Legearen 97.1 artikulua adierazten du plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoarekin bat etorri egin, izapidetu eta onetsiko direla. Gainera, 95.1 artikuluan ezarrita dago plan partziala egitea hasiera batean udalei dagokiela eta pertsona fisikoek edo juridikoek ere egin dezaketela.

Ez dago 2/2006 Legearen 5/98 Legearen 4.2 artikuluan jasotzen zenaren antzeko erregulaziorik. Bertan zehazten zen udalaz gaindiko plan partzialak eta bereziak direnean, hasierako eta behin-behineko onespina emateko eskumena eraginpeko udalerrien artean akordiorik ez dagoenean dagokion foru aldundiari dagokiola, salbuetsiz hainbat lurralde historikotako udalerriei eragitea. Kasu horretan eskumena Eusko Jaurlaritzarena litzateke.

Legezko hutsune hori judizialki ebatzi da antzeko moduan udalerrri bati baino gehiagori eragiten dieten plan berezientzat 2/2006 Legearen 92. artikuluan plangintza orokorra bateragarri egiteko planentzat ezarritako eskumen arauak aplikatuz.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 92. artikulua bateragarritasun plana egiteari, izapidetzeari eta onesteari buruzkoa da, eta bertan aurreikusita dago foru esku hartzea egongo dela bakar-bakarrik eraginpeko udalerriek horretarako akordiorik lortu ezean:

"1. Hirigintzako antolamenduko planak udalerrri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki-entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

2. Akordiorik ez badago, foru organoak –arazoak lurralde bakar bati eragiten badio– edo Autonomia Erkidegoko organoak –lurralde bati baino gehiagori eragiten badio– bi hilabeteko epea ezarriko du akordio hori lortzeko. Epe hori amaituta akordiorik lortu ez bada, foru-administrazioak edo Autonomia Erkidegokoak –dagokionak– bateragarritze-plan bat egin, izapidetu eta onartuko du. Izapideetan, entzunaldia eskainiko zaie arazoarekin zerikusia duten toki-entitateei."

Emandako epea igaro eta akordiorik lortu ez bada, Arabako Foru Aldundiari dagokio "Laminoria" parke eoliko eta fotovoltaiakoaren plan berezia izapidetzea eta, hala badagokio, onestea.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Hasiera ematea Aixear SA enpresak formulatutako "Laminoria" parke eoliko eta fotovoltaiakoaren plan berezia izapidetzeko eta onesteko prozedurari.

Bigarrena.- Hasiera ematea "Laminoria" parke eoliko eta fotovoltaiakoaren plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedurari, eta eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsultatzea espedientearen bat etorritik ingurumen ebaluazioari buruzko legerian jasotakoarekin.

Hirugarrena.- Foru agindu honek izapide egintza ez kualifikatuaren izaera du, eta beronen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 16a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO